



Fitxa teknikoa URUBI ARRUNTA

Espezia: *Strix aluco*


Familia: Titonidoak

Ordena: Estrigiformeak

Klasea: Hegaztiak

Urubi arrunta, basoetako kaheka gorria

Testua eta argazkiak: **J. R. Aihartza**



L. Dassance eta J. Elissalde 1923-25 bitartean “Gure Herria” aldizkarian “Eskual-Herriko hegaztinak eta choriak” izenburupean argitaratutako artikulu-sorta batean, “gau-chori harrapariak” bi motatakoak zirela azaltzen zuten: *Bat, beharriduna, maiz oiha-netan bizi da: erdaraz, “hibou” eta “duc”.* Bertzea, beharirik gabea, maiz harroka ziloetan, etche zaharretan edo eliza dorreetan dago: erdaraz, “chouette”. Eta asko ihiztari zaharrek elhe eginik, asko hiztegi zahar ikerturik, uste dugu hau kaheka deitu behar dutela, *Eskualdunek: hura aldiz, huntza.*

Dassance eta Elissalde burututako sailkapen argi eta garbia ordea, ez zaigu egun nahikoa iruditzen antza, eta “beharridun nahiz beharirik gabeak”, hainbat espezie desberdin bereizi ditugu harrapari gautarren artean ere. Eta horregatik, Euskal Herriko naturaren deskribapenaren aitzindari izandako bi idazle hauek “kaheka” hitzez izendatzen zuten hegazti-motaren banean, gaur egun mozoloa (*Athene noctua*), hontza zuria (*Tyto alba*), zingira-hontza (*Asio flammeus*) eta urubi arrunta (*Strix aluco*) bereizten ditugu; kontua gauzak konplikatzea baita!

Hontza eta kahekaz osatutako estrigiformeen ordenaren baitan ordea, azken espezie hau —urubi arrunta (*Strix aluco*)— dugu, zailtzarik gabe, Euskal Herriko espezierik hedatu eta ugariena. Itxurari dagokionez, gainerako estri-

giformeen antzekoa da oso: beti tente mantentzen da, buztana laburra du, eta burua berriz, handia eta biribiltua.

Bestalde, urubia 37-46 cm-ko luzera eta 340-450 g bitarteko pisua duen hegaztia dugu. Tamaina ertainekoa edo handitxoa, beraz, estrigiformea izateko. Begiak beltzak ditu erabat, eta hau ezaugarri bereizgarria du. Izan ere, Euskal Herriko gainerako estrigiforme gehienek begi laranja edo horiztak



Urubia animalia ikusgaitza da, baina bere kantu ozena erraz entzun daiteke, ilunabarrean eta gaueko lehen orduetan batipat, Euskal Herriko ingurune gehienetan.

baitauzkate. Lumaje trinkoa berriz, arrea edo grisa izaten du, eta ageri duen pintarraketa medio, kriptikoa dela esan daiteke. Honen arrazoia bestalde, nabaria da oso. Izan ere, urubia bizimodu gautarreko hegaztia baita, eta gauetz koloreek ezer gutxitarako balio dezakete. Bestalde, eguna kokaleku segururen batean igarotzen du geldirik, erdi-lotan, eta egoera honetan ahalik eta koloraziorik apal eta ikusgaitzena izatea komeni zaio, noski.

Urubia basoko hegaztia da bere bizilekuari dagokionez, eta ehizerako habitat mota desberdinak us-tira baditzake ere, zuhaitzak derri-gorrezkoak ditu, bai habia egiteko, eta bai kokaleku eta ezkutalekutarako. Hau dela eta, urubia Euskal Herriko ia eskualde guztietan bizi da Nafarroako hegoaldean izan ezik, bertan ez du baso-ingurunerik eta.

Elikadurari dagokionez ordea, urubia ehiztari orojalea da, eta oso mota desberdinetako ehizakiak harrapa ditzake, muga bakarra tamaina duelarik. Ehizakirik arruntak arratoiak, saguak, satinak, satorrak, muxarrak, satitsuak, eta beste mikrougaztunak izaten dira, baina hauez gainera makina bat in-tsektu (kakalardo handiak batipat), hegaztiak, eta zenbait anfibio eta narrasti ere harrapa ditzake. Azken hauek ordea, oso aldizka baino ez ditu atzematen. Izan ere, urubia gauetz aritzen delarik, ordu horietan narrasti gutxi mugitzen baita.

Eta ehizakia mugitzea derrigorrezkoa da, urubiak aurkitu ahal

izan dezan; hegazti bikain honen ehiza-tresna nagusiak ikusmena, eta batez ere entzumena baitira. Urubiaren begiak handiak dira oso, eta beraz, baita bere begininiak ere. Ondorioz, urubiak usoak baino 100 aldiz argi gehiago jaso dezake. Baina hontza eta kaheken begiek badute beste berezitasunik: esferikoak izan beharrean zilindrikoak eta luzeskak dira, eta honela, jasotzen duten argiak askoz ere irudi handiagoa sortzen du beren erretinan, formen diskriminaziorako ahalmen ikaragarria lortzen dutelarik. Eta hau lagungarri zaie oso gaueko iluntasunean ikusi ahal izateko. Begi zilindrikoek ordea, badute bestelako ondorioz, eta horregatik, urubiaren ikusmen-angelua 110°koa besterik ez da (gurea 180°koa, eta usoarena berriz, 360°koa da). Baina eskasia hau konpontzearen, urubiaren burua izugarri erraz giratzen da alde batera eta bestera, eta bere inguru osoa ikus dezake behar izanez gero.

Nolanahi ere, urubiaren ehiza-tresna bikainena entzumena da. Belarri ikusgaitzak, buruaren alde bietara asimetrikoak kokatuta dituen organo handiak dira, eta bestalde, begien inguruan ageri dituen lumazko disko fazial bikainek, anplifikagailuaren lana betetzen dute. Horrela, urubiak katuak baino lau aldiz zehatzago koka ditzake hotsak, eta are gehiago frekuentzia altukoak direnean (animalia txikiek orbel gainean dabiltzanean sortzen dituztenak, adibidez).

Ehizakiaren kokalekuaz jabetu ondoren, eraso egiten dio. Harrapakin dohakabeak ez du defentsabiderik; gainera bere luma leunei esker urubiak hegan hasten denean ez baitu inolako hotsik ateratzen. Ehizakia atzapar bikainez harrapatu duenean, urubiak irentsi egiten du oso-osorik, eta liseriketa burutu ostean, ileak, hezurak eta beste hondakinak oka

eginez kanporatzen ditu, egagropila izenez ezagun den zilindro-itxurako masa eratuz. Egagropila hauek animalia ohizko kokalekuaren inguruan ugari aurki ditzakegu, eta horiek aztertuta makina bat datu lor daiteke, bai urubiaren dietari dagokionez eta bai ingurune horretako mikrougatzunen populazioei dagokienez.

Urubia animalia ikusgaitza da, baina bere kantu ozena erraz entzun daiteke, ilunabarrean eta



Hegazti bikain honen ehiza-tresna nagusiak ikusmena, eta batez ere entzumena dira.

gaueko lehen orduetan batipat, Euskal Herriko ingurune gehiengentan. Kantu honen zeregina lurraldearen jabetza aldarrikatzea izaten da, eta ondorioz, urtariletik aurrera askoz ere maizago entzun genezake, bikotea ugalketa-lanei lotzeko prest dagoenez gero. Otsailaren erdi-aldetik aurrera, enbor-zuloren

Hegan ikasi aurretik abiatzen dira urubi gazteak enborretan gora habiako zulo goxoa utziz, baina makina bat aste egingo dute oraindik gurasoen babesean.



bat aukeratu, eta emea erruten hasten da. Bizpahiru egunero bat eginez, guztira 3-5 arrautza errun ditzake, eta lan horri eutsi ondoren, arra izango da bazka lortzeaz arduratu dena, eta emea habiatik ez da irten ere egingo.

Txitoak 28-30 egunen buruan jaiotzen dira, eta munduratzean grisez pintarratutako lumaska zuriskaz jantzitako hegaztitxo itsu eta xebreak izaten dira. 20 g inguruko pisua besterik ez dute izaten. Begiak irekitzerako bi aste igarotzen dira, eta beste bi beharko dituzte helduen tamaina eta itxura lortzeko. Dena dela, eta arrautzak bizpahiru egunero erruten dituztenez, txitoak ere bizpahiru egunero jaioko dira, eta horregatik, sarritan, lehen txittoa eta azkena jai bitartean bi aste ere igaro daitezke. Eta ondorioz, gurasoek behar adina jakirik lortzen ez badute, txito gazteenak hil egiten dira, zaharrenek jan ditzaketelarik.

Hegan ikasi aurretik abiatzen dira urubi gazteak enborretan gora habiako zulo goxoa utziz, baina makina bat aste egingo dute oraindik gurasoen babesean, eta uda-erdira artean hauek arduratuko dira txitoei bazka

emateaz. Epe horretan sendotu, eta ehiza-lanetan trebatu egin behar dute noski; udazkena iristerako gurasoek bidali egingo baitituzte beren lurraldetik, aurrerantzean bere gisara moldatu beharko dutelarik. Eta hori ez da hain erraza, gazteen erdiak urtea bete baino lehen hil egiten dira eta.